

Día mundial de la Arquitectura - lunes, 5 de octubre

Arkitektura hobe bizitzeko

“Hiri diseinua eta arkitektura ezinbestekoak dira guztion bizi kalitatea hobetzeko”. UIA 2020

Urriaren 5ean, Arkitekturaren Nazioarteko Egunarekin bat etorrita, mundu osoko arkitektoek Arkitekturaren balioa eta eraikitako ingurunearen kalitatea aldarrikatzen ditugu pertsonen ongizatea eta ingurumenarekiko oreka hobetzeko, eta gure lanbideari orientazioa eta zentzua ematen dion eginkizunarekiko dugun konpromisoa berresten dugu.

Koronabirusaren pandemiaren ondorioz gure etxebizitzetan askoz ere denbora gehiago *igaro dugu, gure ohiturak eta espazio sozialak aldatu egin dira eta, berriz ere, mundu osoan argi geratu da krisiek askoz ere bortitzago eragiten dietela kolektibo pobre eta zaurgarrienei**. Errealitate honek gogorarazten digu eraikitako ingurune on batek eta Arkitektura on batek duten garrantzia gure osasunaren babeserako eta gure bizi baldintzak hobetzeko.

Eta ez bakarrik COVID19aren krisiaren ondorioz. Pandemia gainditzea eta eratorritako krisi ekonomikoaren aurreko erantzuna bideratzea lortzen dugunean, oraindik ere beharrezkoa izango da gure bizi kalitatea pixkanaka degradatzen duten erronka sozial eta klimatikoei aurre egitea. Pandemiaren aurretikoak diren erronka hauek gure hirien, eraikinen eta etxebizitzaren eraldaketa azkarra eskatzen dute. Horietako gehienak jada gureak ez diren bizimoduaren arabera eraiki ziren, orain mugatuak direla dakigun eta, beraz, xahutu ezin ditugun baliabide naturalak kontsumituta. Hiri, eraikin eta etxebizitzak eguneratzea, etorkizun hobe bat eraikitzen lagundu dezaten, premiazko erronka kolektiboa da datozen urteetarako eta arkitektoen lanaren lehentasun nagusia ere bai.

Aurreko edizioetan, Arkitekturaren Nazioarteko Egunak topaketa soziala sustatu du ekitaldien, eztabaiden eta eraikinen bisitaldien bitartez, babestu eta etorkizuneko belaunaldientzat hobetu behar dugun aurreko belaunaldiek utzitako ondare kolektiboaren ezaguera sustatzeko eta haren balioa azpimarratzeko helburuarekin. Aurtun, pandemiak ekarritako zailtasunak direla eta, proposatu nahi dugu guztiok, neurri handiagoan edo txikiagoan gure ingurunearen hobekuntza bultzatzeko erantzule eta gai garen heinean, aldaketaren eta eraikitako ingurunearen kalitatearen hobekuntzaren eragile senti gaitezen, pandemia honen ondorioz guztiok bizi behar izan dugun esperientzia latza abiapuntu hartuta.

Arkitekturaren Nazioarteko Egunean, arkitektoek gure gizartearekiko konpromisoa azpimarratzen dugu eta haren ongizatea eta ingurumen oreka hobetzen laguntzeko helburua ere bai, sektorearen eta gure herrialdearen modernizazioaren bidez eta birgaitzea, hiri berrikuntza eta etxebizitzara sarbidea bultzatuta. Horretarako, baldintza profesional duin eta egokiak ezartzen dituzten araudi bat eta esparru ekonomiko bat behar ditugu, gure gaitasun handienarekin lagundu ahal izateko Arkitekturaren bitartez pertsona guztion ongizatea, osasuna eta segurtasuna hobetzera, eraikitako ingurunearen kalitatea areagotuta.

Lluís Comerón Graupera
Presidente del CSCAE

* [Extracto de la declaración de la UIA por al Día mundial de la Arquitectura 2020.](#) -